

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Idatz (idatz) neguan girea?
2. Neguaren ezagutzarriak zoin dira?
3. Norendako negua lutz garrin da?



NEGIAN GIREA? \*

Negu beltza heldu zaiku tarrapatan, hurrats haundiekin, aurthen yaz baño goiziarago. (goizago)

Langarrak, izotzak, lantzurdak<sup>1</sup>, karröinak, elhurrak. Horra negiak ekhartzen dauzkigun dohain hitsak, zazpi ilhabethez haren mehatxuen azpian egoiteko.

Urriaren hogoian gira, eta yadanik Iruñeko inguruetak mendi guziak beren mihise xuriarekin estaliak dira.

Lertsunak beren garrasi borthitzekin badoatzi lerro-lerro, hegoalderat, ipharraldeko eremuatarik ihes-eginik, lur ephelen bilha, beren neguko bazka lekhuetarat, itsasoz gain-<sup>2</sup> Afrikaraino.

Usoak ere, trumilka<sup>2</sup>, Belate-ko eta Ibañeta-ko mendiz barna bide bera deramate, toki horietako oihanetan, papoak ezkurrez untsa bethe ondoan phagodi eta haritztegiatan.

Hegaztin mota guzikoak badoatzi, lekhu beroetarat, eta gu, gaizo gizonak, anarthean hemen egon beharko hotz ikharan, ezinbertzez bortxaturik, lanarekin bizi behar dugunek.

Zoazte, zoazte, xori dohatsuak, zien yuaiteak hitsten girtuzte, negiaren agintza zireztelakotz. Sei-zazpi hilabete egoin gira zuen itzuliaren beha, denbora ederraren mezulariak izain zirezte, zeren eta sasoin arrigarria ekharriko duzitalakoz gure biotzaren bozkariotzeko.

Bainan hemen gelditzen girenek zer nekheak iragan behar ditugun arolatzgarriari ihardokitzeko. Sudurrak eta beharriak gorrituak, eñiak gogortuak eta mutzituak<sup>3</sup>, gorputzak ikharan, hortzak klakaka, zangoak karroindiak...

Eta bizkitartean bada yende negia maite dutenak.

Atx! ez dute nere odola, seurki. Hotzak uzkhurtzen nu, su xokotik ezin baztertuz, eta han ere ilezko soineko lodiekin gerizatua kanpoko haize mehetik, hezurretan sartzen den hortatik...

Negia da lurreko izaite xumeen eta yende ahul eta errumesen heriotza, eritasunen sasoina.

Eztulak, marrantak, birietako minak, errumatismak, eta osagarriaren etsai guziak mehatxuka.

Sasoin tzarra, hail, hail; pasa hadi zalhu, kalte haundirik egin gabe.

Hasia nuk yadanik mokanes bustitzen, urtzintzaka<sup>4</sup>...

1935-eko Urrian.

\* (La Voz de Navarra, 1935/10/23)

hail, hail = habil, habil  
egoin = egonen  
uzain = uzanen

③ ADITZ IRASKUNTZA.

31 ekhartzen dauzkigun 32 badoatzi  
33 bide bera deramate 34 hasia nuk.

31. UKAN. Conjugaison à double complément.

Indicatif Présent.

O. S. Guri = à nous, C. I. P.

Zuk daukuzu = vous nous l'avez

Harek dauke = il nous l'a

Zuek daukuzue = vous nous l'avez

Heiek daukute = ils nous l'ont.

C. P. Emaiten daukugu = Vous nous le donnez

O. P. C. I. P.

Zuk dauzkiugu = vous nous les avez

Harek dauzkiu = il nous les a

Zuek dauzkiuzue = vous nous les avez

Heiek dauzkiute = ils nous les ont

C. P. Emaiten dauzkiugu = ils nous les donnez

32. JOAN. Indicatif.

Présent.

Imparfait

Ni noa = (je vais). nindoan = (j'allais)

Hi hoa = { hindoan = }

Zu zoatzi = { zinoatzi = }

Hura doa = { zoan = }

Gu goatzi = { ginoatzi = }

Zuek zoazte = { zinoazten = }

Heiek doatzi = etc. zoatzi = etc.